# Baldorba : PAROLES

**Ezkil gabeko elizen**
**Eremu emankorra,**
**Giza murzuriko**
**Zure ardientzat.**

**Oi Baldorba!**
**Eguzki eta haize idor;**
**Mahats-ardo ibai,**
**Galbumarena.**

**Lur gorri, harri landu,**
**Mailu eta xixelaren kantu.**
**Gitarrazko alakiketan**
**Armeniako kanun ahots urratuan.**

**Oi Baldorba!**
**Esazu nor zen bidetik**
**Baztertu zintuen madarikatua!**

**Zure irriño erromanikoa**
**Erdi izoztu eta leloturik**
**Utzi zuen madarikatuaren**

**Izena nahi dut.**

**Oi Baldorba!**
**Ezazu nor zen bidetik**
**Baztertu zintuen madarikatua!**

**Oi Baldorba!**
**Zutaz oroit eta**
**Zuri nagozu.**

**Kantu bat laburra da eta**
**Pentsa zuk,**
**Esaten ez dizudan hartaz.**

**Oi Baldorba!**
**Esazu nor zen bidetik**
**Baztertu zintuen**
**Madarikatua.**